

16

ZRV

3239





M. 26006 / R. 40604

SAN JOSÉ

1. ATV  
21616

ETA

**FAMILIA SAGRADUAREN  
GORTEA.**

VISITA EGUITECO OTOITZAC  
EGUIÑAC

AITA VENERAGARRI

JOSÉ MARIA RODRIGUEZ

**SAN JOSEREN**

ASOCIACIONE ESPIRITUALECO DEVOTUEN

Buruzañuac

ETA ORAÑ SACERDOTE BATEC ESCUARARA  
ITZULIAC.



**BARCELONAN.**

Pla deitzen den alargunaren Herederuen  
moldizteguian. — 1870.

*Bear den baimenarequin.*



Amodiozco suan  
Gure viyotzac vero-zatzube  
Jesus, Maria eta José.

## SARRERA.

San José eta Familia Sagraduaren ganaco devociyuarequin deseyatzen den gueyena eta principalena da, Jangoicuaren ganic alcanzatzia eriotze on bat eguiteco gracia, eta eguitea ordu icaragarri artlaraco adisquide segur eta anitz dezaquen bat, gu alde guciyetatic sitiatu eta atacatuco gaituzten etsayetatic libratuco eta salvu ateratuco gaitubena.

Baño ceren gure ecin contaalaco falta eta escasec eguiten baitituzte gure oloitzac otzac eta valiyo guticoac, eta nola Jangoicuac gogoticago entzuten oi ditu anitzenac, bat edo verce izaten delacoz beti Santuen pare oloitzean aridena, onen-gatic san Joseren devotuac eguin dute gorputz bat, *Gortea* izendatu dutena, egunic utzi eta faltatu gabe Patriarca glorioso au onratzeco, eta lagundu eta socorrigaitzan ordu terrible artan are ura gueyago obligarazteco: eta intencio onequin yarri dire compañi etan, 31 lagun dituzten *Coruetan*, ceñen medioz, baco chac, arturic egun senalatua illabete guciyeteraco, visitatzen du denen icenean San José, aren asistencia eta vitartecotasuna eriotze-orduraco erdisteco.

Eta ceren zuc

baitaquizu otoitz  
oquin motibua, eta alere nai baituzu  
*Gortean* sartu, illabete guciyen  
garrenean eguizu visita bat San Jose-  
ren imagiñaren baten, edo Familia Sa-  
graducoen ainciñean, erranden azquen  
orduraco laguntza logratzeco.

---


*Culto perpetuoco* devotuentzat bada vertze li-  
bru tipitto, iru sosecua, correytic errecibi de-  
zaquena erosi naiduenac, igortzearequin carta  
baten barnean imprentara vi sello.

San Joseren *Corona perpetua* deitzen den de-  
vocioan par-te artu naiduenac asqui du modu  
verean vializea sello bat eta izanen du papeleta.

---

Imprenta berean eguitenda, illabete guciyen  
zortzi garrenean ateratzen den san Joseren de-  
vocioco *Propagador* edo edatzallearen suscricio-  
nea, au da, pagamenta: liburu bacocho sueldo  
bat, eta liburu artan eldudira sermoyen pareco  
escribuac; Santuaren alabantzac, eta Santuaren  
bitartecotasunez bere debotuec izan dituzten  
favoreac, eta nola ariden barreyatzen bazterre-  
tan devocio au.

*Pio IX* garrenaren Izpiritua, Aita Santu onen  
vicitzaco gaucie miragarrienac contatzen ditue-  
na: peceta eta sueldo azalic gabe, eta azalare-  
quin 8 sueldo terdi.



## VISITA

EGUITEAN ERRAN BEAR DIREN ORACIOAC.



Asi ainciñian ceñatu †.

ŷ. Jauna, idec-citzu nere ezpañac.

R/. Eta nere agoac alabatuco zaitu.

ŷ. Eman gogotic Jesus, Maria eta S. Joseri gloria.

R/. Eta utzi diocegun encomendaturic borondatea, pensamentua eta memoria.

San Joaquin eta santa Ana

Otoiz eguizue gu gatic.

ORACIOA.

Virgiña Mariaren Esposo denic garbiena, san José, oroizaita nere

faboratzalleric oberena, ez dela  
orañic egundaño yaquin, zu bear-  
tu zaituenic eta zure laguntza gal-  
detu duenic, zuc consolatu gabe-  
tanic despeitua izan dela erran du-  
enic. Confianza Onequin fiaturic  
eldu naiz zure-gana nere burua  
osoqui zure escuetan paratzera.  
; Ah! nere otoitzac flacoac izana  
gatic, ez otoi ni entzun gabe utzi:  
adi-citzu nere oyuac. ; Oh Reden-  
torearen Aita ordea! Socorri na-  
zazu zure violtz zabalac eracusten  
dizun moduan.

*Orañ bear dira erran bortz Ai-  
ta gure Familia Sagraduaren on-  
ran, eta Aita gure bacocharen on-  
dotic erranen du :*

Jesus, Maria, José, Joaquin eta  
Ana, bician eta eriotzean ampa-  
ratzitzue gure arimac.



VERTZE ORACIOA SAN JOSERI.

San José zorionecoa, Patriarcaric poderosuena, Adanen humetaric famatuena, becatarien amparua, cristaben esperanza firmea, affigitu naigabetuen consuelo gogagarria, eta desamparatuen sostenguric valiosuena: nere azquen ordu-ac allegatu bear du; ay! nai ta nai ez: nere arima bere azquen alsetan egonen da gogorqui estutua zure vicitza santuaz oroitzean, eta nere añ mundutarraren bistan: eternidaderaco pausu saltoac arrituco nau: infernuc Diabruac bere eguiñal guciac eguiñen ditu, Jangoicua galaraci albadaut: ez diré nere indarrac arenen garaitzeco asquico; eta munduan den deusecere ez nau la-gunduco: Orainda-

nic bada ¡oh nere Aita! zaitut ordu artaraco deitzen : zure ondora naiz urbiltzen : ez ni utzi ¡otoi! trance artan , eztadiyen nere fede esperanza eta caridadian escasic izan. Zu ill ciñenean , asqui izan ciren elsayen apartatzeco eta botatzeco zure Semetaco pasatzen cen Jangoicuaeren Semearen eta nere Erreguina den zure Esposaren beraren itzala eta presencia bacarra. Orain bada, equin ganic bician eta erioztzean izan cenituen gracia eta carñuen gatic, escatzen dizut, socio lagun deboto gucien icenean , lagungaitzatzula eta urrun ditzatzula gure aldetic ordu terrible artan Infernuco etsayac , eman dezagun azquen alsa soseguan, Jesus, Maria eta Joseran icen gozoac biyotzetic aipatzean. Amen.

PATRIARCA SAN JOSÉ GLORIOSUARI  
OTOITZAC.

San José, Espiritu Santuac berac guizon Justutzat aitortua. — *Lagundu eta asistitu gaitzatzu gure azqueneco orduan.*

San José, Maria beti virgiña izanduaren Esposo angueru antzecua. — *Lagundu eta etc.*

San José, Jangoicuaren beraren Semeac Aita deitu cintuena. — *Lagundu eta etc.*

San José, Ceruco nausi Jangoicuac bere Aitatasunean laguna, eta bere Seme bacarrari cion fiñic-bagueco amodioan participante eguinai izan cintuena. — *Lagundu eta etc.*

San José, lurrean bicitucen Tri-

nidadearen Buruza-guia. — *Lagundu eta etc.*

San José, gauza guciac azten, alimentatzen dituenaren aita, yan bearzuena villatzen ciniona. — *Lagundu eta etc.*

San José, munduco Salvatza-llaren goardazaya. — *Lagundu eta etc.*

San José, guizoney aguerturicaco Argui eternuaren guidatzallea. — *Lagundu eta etc.*

San José, lurrera etorriricaco Yaquinduriaren Directorea. — *Lagundu eta etc.*

San José, Gucia Dezaquenaren Semeac zuri yarraiqui eta obeditzea merecitu izan cinuena. — *Lagundu eta etc.*

San José, Aingueru eta guizonen Erreguiñac zu cerbizatzea me-

recitu izan cinuena. — *Lagundu eta etc.*

San José, Trinitade Santuac Encarnacioco misterio aundian laguntaco artu nai izan cintuena. — *Lagundu eta etc.*

San José, Jangoicuac gueyenic estimatzen tuen bi prendaric andiyenac Jesus eta Maria fidatu zazquitzuna. — *Lagundu eta etc.*

San José, Jangoico-guizonaren eta bere Ama Santisimaren probechuraco zure bici gucico neque izardiac eta cere burua consagratu cintuena. — *Lagundu eta etc.*

San José, sufrimentuetan parrereric gabecoa, ezcongayen modelua eta Amodio Divinoaren sute-guia. — *Lagundu eta etc.*

San José, Patriarca-en Principea eta Santu gucien Burua. — *Lagundu eta etc.*

San José, Ceruco glorian Jesus  
eta Mariaren Tronuaren on-doan  
yarriric zaudena. — *Lagundu  
eta etc.*

San José, aita batec bere hume  
eta espos batec bere andreare-quin  
bezambat libertade eta escu Ce-  
ruan gozaten duzuna. — *Lagundu  
eta etc.*

San José, arima pura eta gar-  
bien abogadua. — *Lagundu eta etc.*

San José, Eliza-Guizonen isspi-  
llua. — *Lagundu eta etc.*

San José, Cristaven Matrimo-  
nioco Santidadearen ejemplu eman-  
zallea. — *Lagundu eta etc.*

San José, ill urran agonian  
daudenen Aingueru goardiacoa. —  
*Lagundu eta etc.*

San José, guizonen bearcun-de  
eta miserietaco medicu eta aboga-

duric oberena. — *Lagundu eta  
asistitu gaitzazu gure azqueneco  
orduan.*

OTS ITZULIA EDO ANTIFONA.

Erranditugun privilegio, gracia  
eta merecimentu oquin guciyen  
gatic escatzen dizugu. ¡ Oh ! San  
José gure Patronua ! ezin gueyago  
aberetsa eta andiya zarena, eman  
diezaguzula, zuri, albecembat  
zure virtute famatuetan imitatu  
eta seguitzeco valorea ; urrical  
zaitecila vicitza triste onetan ditu-  
gun asco goraberetan ; gu guere  
eriotzean lagundu eta laboratu  
ondoan eraman gaitzazu guero.  
Cerura, Jesus eta Maria icustera.  
Guisa berean ere erregutzen zai-  
tugu edo escatzen oroizaitecila Eli-

za Catholicuaz, Aita Santu Erroma-  
coaz, Obispo gucietaz eta Elizaren  
Fedean eta obediencian bici dire-  
netaz.

Jesus, Maria, José, Joaquin eta  
Ana bician eta eriotzean ampara-  
tzitzue gure arimac.

Esquerrac eta alabanzac

Nere arima agradecituac

Eman bizayote continuqui

Nere Nagusi direneri

Jesus, Maria eta Joseri.

JACULATORIA, EDO VIYOTZECO

SUSPIROA.

¡ O Mariaren Esposua

San José Gloriosua !

Zaindu ampara gaitzalzu

Eliza, Aita Santua eta Gu.



**DESPEDIDA.**

Ceruco Emperatrizaren  
Esposo castoa zarena

; Oh nic cembat biotzaren  
Zu deituaz gustu dudena !

Nere Gorteco lagun  
Icenean Zaitut laudatzen  
Baita Zar, Gazte, Aitunen  
Amodioa ofrendatzen.

Nere egungo lanarequin  
Ez pazaitut ongui onratzen  
Bay segurqui penarequin  
Dizut barcamendu escatzen.

Edabedi prisarequin  
Sociedade Santa au  
Jesus, Mariac zurequin, José,  
Bedeicazazuben gaur.

**INDULGENCIAC.**

Tarragonaco eta Cubaco Arzobispuec, eta Bar-  
celonaco, Puerto-Ricoco eta Puerto-Victoriaco  
Obispo Jaunec eman cituzten 80 eguneco indul-

genciac lembicico biyec; eta verce irurec 40  
ecuac Cofradiacoec eguinen duten egunoroco  
visitaren saritzat: verce orrember cecoac, con-  
fesa comecatzen diren aldioroco; eta verce aim-  
berce, Familiarequin itchian, edo Elizan, ora-  
ciosa eguinen dutenecotzat, baldin oroitzen badi-  
ré otoiztuz Jangoico Jaunari Cristau Principien  
arteco baque eta Elizaren verce intenciyuetaz.

Gañera, Españaco Jaun Arzobispu eta Obispo  
batzubec emau dituzte Gure san Joseren Cofra-  
diari orañ erranen ditu gunac.

— 2080 — eguneco indulgenciac Societate  
onetan sartzeaz, eta — 40 — egun gueyago, sar-  
tzezo demboran confesatu comecatzearequin.

— 1220 — egunecoac, devocione, piedade edo  
caridandezco edo cein acto, devotuec eguiñen  
duteneraco; eta gauza oc baldin balimbadiré  
Asociacione cuac — 120 — egun gueyago. — Aso-  
ciacioneari tocatzen, beguiratzen, uquitzen dio-  
ten acto guciyeri — 120 — egunecoac: eta san Jo-  
seren ondran beress eguittenden acto particular-  
rac baditu — 80 — eguneco indulgenciac.

Aita gurea, edo Ave Maria Gloria Patrirequin.  
Novena, Zazpi Gozoac edo jaculatoria *O san José  
gloriosua...* errezatzen dutenac irabazten dituzte  
— 220 — egun, gauza edo otoiz otarie bacochar,  
eta Santuaren imagiñaren baten ainciñean egui-  
ten balimbadiré, Aita gureari — 200 — egun gue-  
yago, eta hertze enzat — 160 — egun, bacochar,  
daude emanac. Elizac ontzat emanicaco otoitz  
gucienzat badiré, bacocharen — 260 —, eta Co-  
fradia onen debotuac, Jan goicuari, san Joseren  
medioz, Elizaren bearcundeenzat escatzen edo  
errezatzen dioten gucietan, baditzazquete ira-  
baci — 140 — egun indulgenciac.



